

Proiektu hau hainbat herritarrentzat irtenbide edo baliabide egokia dela esango genuke, hau da, proiektu hau den zerbitzu honen bitartez, herritar askok lasai ibili ahal izango dute gaueko ordu txiki naiz handietan edozein arrazoiengatik dela ere.

Honek bide batez arriskuen murrizketarengatik bereizten gaitu, hots, gaueko ordu ilunetan etxera modu seguru batez iristeko aukera eskeintzen du. Kontuan edukiz, etxera bakarrik ibiltzen joateak dakarren arriskua; esate baterako, eraso matxistak, bortxaketak, labankadak, borrokak, desagertzeak, bahiketak, istripuak... Bestalde, erabilerraztasunak ere bereizten gaitu beste proiektuengandik, izan ere, gauean etxera joateko, dei bat soilik egitearekin eta ordaindu beharrik gabe konfiantzako garraioa ziurtatzen dugu.